

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maximo Undabeitia Zabala

*Muxika,
Bizkaia
(1919-2010)*

Aurkibidea



Biografia



1919ko abuztuaren 8an jaio zen Ibaruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoko Auzokoa baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Mendatako Lamikizekoa. 11 neba-arrebatatik hamargarrena da bera. Ajuriako eskolara joan zen umetan. Meza-laguntzaile eta medikuari abisua ematen aritzen zen umetan. Gerra sasoiari, Teruelen eta Bilbon ibili zen soldadu, besteak beste. Baserriko eta basoko lanetan aritu izan da batik bat; Urrutxun bizargin beharretan aritutakoa ere bada. 1945ean Ibaruriko Aluze baserriko Lucia Aldairekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Bertan bizi izan zen ordudanik. Grabaketan bere alabak ere parte hartzen du.

Zintak

MUX-010

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-01-12
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Ajuriako eskola; meza-laguntzaile

- **Erref:** MUX-010/004
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:02:46. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Umetan Ajuriako eskolara joan zen, neska-mutilak elkarrekin ibili ziren maistra bakarrarekin. Umetan okerra ei zen. Meza-laguntzaile ere aritu izan

zen urte askoan; bertan egindakoak-eta kontaktzen ditu. Abadeagaz "untziñoa", azken bedeinkazioa, ematen aritzen zen.</p>

2. Mediku bila bizikletaz

- **Erref:** MUX-010/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Mediku bila ere aritu zen umetan, Muxikaraino joaten zen gauzez bizikletaz don Juan medikua abisatzera Astelarrara.</p>

3. Medikua kontrabandoan

- **Erref:** MUX-010/006
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Balkoitik medikua noiz zetorren ikusten zuten eta Maumatik zetorrela medikuak Ajurian kolpea izan zuen eta Zugastietan pasatu behar zuen kontrabandoa eta Mauman baten batek emandako bildotsa zekarren medikuak. Medikua ezin izan zuenez jarraitu Maximok lagundu zion astoan eramanda bildotsa; astoa okerra zela dio.</p>

4. Kontrabando-laguntzaile eta fiolatoa

- **Erref:** MUX-010/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:15:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Ajuriatik bajatzeko fiolatoa pasatu behar zuten eta hura pasatzea ez zen erreza, baina astoz pasatu zenez, alderdi batean arkumea eta bestean ardia zituela inork ez zion kasurik egin; medikua eta bere emaztea oinez pasatu ziren. Alabak azaltzen du zer zen fiolatoa; Irripen eta Zugastietan zegoen.</p>

5. Gurasoak gazterik hil zitzaizkion

- **Erref:** MUX-010/008

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:15:41. **Bukatu:** 00:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gazterik galdu zituen gurasoak. Ama Arratiako tranbiak zapalduta hil zen; aita hargina zenez, laneko hautsak bularrera eragin zion.</p>

6. Ama Birjinak lagunduta gerran

- **Erref:** MUX-010/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerran, Ama Birjina izan zuela laguntzen dio, inoiz ez zitzaiolako ezer gertatu bala artean ibili arren. Teruelen eta beste hainbat lekutan egon zen.</p>

7. Gerrako kontuak: frontea, hildakoak...

- **Erref:** MUX-010/014
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Frontea altuera denetan zegoela dio: Askarin eta Bizkargin, besteak beste. Ajurian, Solabarriko seme bat hil zuten, bere anaiarekin batera egun pasa joan zirenean: bideak ebaki zizkieten eta abioi bat ikusterakoan areka (kuneta) batera joan zen; ikusi egin zutenez, tiro bi eman zizkieten. Ganadua errekisatu zieten, 12 bat buru zituzten.</p>

8. Baserriko bizimodu gogorra

- **Erref:** MUX-010/016
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:28:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Anai-arreba asko zirenez baserritarrak izan arren gosea pasatu zuten; galdara batetik jaten zuten denek, amak hondakinak jaten zituen. Askotan

eskolara joan beharrean baserriko beharretan aritu behar izaten zen, eta maistrari azalpenak eman behar izaten zizkion. Hala ere, aurreko egunean egin gabekoak egin behar izaten zituen berdin-berdin.</p>

9. Errotak

- **Erref:** MUX-010/017
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:28:29. **Bukatu:** 00:31:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Okako, Usinbaltzako eta Ikerixeko errotetara joaten ziren; gauez joan behar izaten zuten. Txakurragaz joaten zen errotara baten bat agertuz gero abisatzeko. Guardiak denean egoten zirela dio; beraientzat zorroa bete eta besteei utzi ez.</p>

10. Kupoa entregatu beharra

- **Erref:** MUX-010/018
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:31:06. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Hartzan zen jeneroaren portzentaje bat entregatu egin behar izaten zen herriarentzako. Behin ez entregatzea pentsatu zutenekoa kontatzen du.</p>

11. Errazionamendua banatzen osabagaz

- **Erref:** MUX-010/019
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:34:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Bere osabak zuen errazionamendua banatzeko ardura eta bera aritzen zen laguntzen.</p>

12. Parranda eta erromeria gutxi

- **Erref:** MUX-010/021
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:34:59. **Bukatu:** 00:36:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Okako okindegian artxoa erretzen zuten eta bertan egindako txakolina izaten zuten eta bertara joaten ziren. Erromeria gutxitara joan zela dio, ez zutela horretarako astirik.</p>

13. Neska-laguna ezagutu zueneko

- **Erref:** MUX-010/023
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:36:21. **Bukatu:** 00:40:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Munitibarreko entierro batera joan zen eta bertan ezagutu zuen neska-laguna. Handik bueltan Ajuriako San Isidrotan gelditu ziren eta neskari etxera arte, Ibarruriko Aluzera arte lagundu zion. Arerioak zituela dio eta bizikletako erroberak zulatu zizkioten. Aitagarreba herriko aguazila izan zen.</p>

14. Isidro Undabeitia alkatea

- **Erref:** MUX-010/025
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:42:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Bere familiako bat, Isidro, alkatea izan zen; berbetan ondo zekiela dio.</p>

15. Amaginarreba partera

- **Erref:** MUX-010/026
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:43:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Bere amaginarreba herriko partera zen, urruneko auzoetara ere joaten zen oinez borondatearen truke.</p>

16. Sagardoa

- **Erref:** MUX-010/028
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:46:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Sagardoa egiteko Berroja auzora joan behar izaten zuten; ardorik ez zegoen garai hartan. Emakumezkoek ere edaten zutela dio.</p>

17. Luto sasoian ezin dantzarik egin

- **Erref:** MUX-010/031
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:51:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Soinu-jotzaileari gizonetzkoek ordaindu behar izaten zioten. Lutoa eraman behar zutenean, urte betean ezin zen dantzarik egin, eta Maximok denbora asko pasatu zuenez, horrela ez zuen dantza askorik egin.</p>

18. Labako sua; laietan

- **Erref:** MUX-010/033
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:55:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Aste osoko ogia labean egiten zuten. Laietan ere aritutako zen; solora ezin zen astorik sartu zapaldu egiten zutelako.</p>

19. Lehenengo autoa medikuarena

- **Erref:** MUX-010/035
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:56:48. **Bukatu:** 00:58:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Lehenengo autoa medikuak ekarri zuen Ajuriara. Errebuelta batean kolpea izan zuen eta beheko errebara jausi zen. Maximok berak irabazitako diruarekin erosi zuen bizikleta.</p>

20. Barbero ibilitakoa, pezeta bat ilea ebakitzearren

- **Erref:** MUX-010/036
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:58:23. **Bukatu:** 01:00:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Arreo moduan ohea ekarri zuen. Barbero legez ere ibili izan zen, domeketan Urrutxura joaten zen; pezeta bat kobratzen zuen.</p>

21. Eztei-bidaiatik olioa kontrabandoan

- **Erref:** MUX-010/038
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:00:37. **Bukatu:** 01:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Eztei-bidaian Donostiara joan zen eta handik olioa ekarri zuen kontrabandoan.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com